

## ● **BALIABIDEAK**

### **ZEIN DIRA ELEMENTU GARRANTZITSUAK ZUEN PROIEKTUAK FUNTZIONA DEZAN?**

Gure lokala aurrera atera ahal izateko **baliabide batzuk beharrezkoak** izango ditugu. Negoziorako izan beharreko elementu garrantzitsuetako bat **lokala** da, handia izatea egokia izango litzateke, horrela hainbat geletan banatuko genuke. **Gela bakoitzean estres maila jaisteko alderdi desberdinak** jarriko genituzke, horrela, bakoitzean gauza desberdin bat egiteko aukera izango dute gure bezeroek. Beste alde batetik, **gela inzonorizatu**a izatea oso garrantzitsua izango dela uste dugu. Hau izango litzateke bezeroak lasaitzeko moduetako bat, gela honetan ekoizleek aukerakoa dute zer egin nahiz eta



ohikoena ohiuen bidez desestresatzea izango litzatekeela uste dugu. Ekoizleen estres maila jeisten **auskorrek diren materialak** egokiak izango dira gure negozioan, eta horrelako material asko beharko ditugunez, birziklagarriak izatea nahiko genuke. Beste alde batetik, lokalean spa batean lasai egoteko aukera ere izango dute bezeroek. Estresa kudeatzeko modu desberdinak ditugu gizakiok eta uste dugu spa bidezko modua egokia izan dezakeela. Beraz, **spa egiteko** eta bertan beharko ditugun **materialak** ere beharrezkoak izango dira. Bestalde, masajeak hartzeko aukera ere egongo da, horretarako, **masajistak** kontratatu beharko ditugu. Bertako bulegoa ezinbestekoa izango da, horretarako, **langileak** kontratatu beharko ditugu, eta nola ez, gure lokala txukun mantentzeko **garbitzaileak**.

Uste dugu, baliabide hauen beharra izango dugula gure enpresak fama izan dezan eta hauen erabilerarekin bezero asko izango ditugulakoan gaude.